

ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOKO ZIGOR-ARAUDIA

Bertsioa: 2019ko martxo

Dokumentu hau honela aipatu:

*Aranzadiko Erantzuntze Bulegoa, 2019. Aranzadiko Erantzuntze Bulegoko Zigor-
araudia, 2019ko martxoko bertsioa. Aranzadi Zientzi Elkartea. Donostia.*

ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOKO ZIGOR-ARAUDIA

FALTA MOTAK

Falta arina

Zigorrik gabe. Egindako arau-haustea idazki baten bidez jakinaraziko da.

Falta larria

Arau-haustea jakinarazten den momentutik:

- Urte baterako eraztunle-baimena kentzea. Zigorra bete ostean, baimena berreskuratzeko aukera egongo da.
- Eraztunle-talde baten arduradun izateko 2 urteko gaitasun gabetzea.
- Eraztunle Batzordeko edota Ornitologia Saileko Zuzendari izateko hautagaitzara aurkezteko 2 urteko gaitasun-gabetzea.

Falta oso larria

Arau-haustea jakinarazten den momentutik:

- Urte baterako eraztunle-baimena kentzea. Zigorra bete ostean, baimena berreskuratzeko berriz ere azterketara aurkeztu eta gainditu beharko da. Azterketara aurkezteko eraztunlegai berriei eskatzen zaizkien baldintza berdinak eskatuko dira.
- Eraztunle-talde baten arduradun izateko betirako gaitasun gabetzea.
- Eraztunle Batzordeko edota Ornitologia Saileko Zuzendari izateko hautagaitzara aurkezteko betirako gaitasun-gabetzea.

Kanporatzea

Eraztunle-baimena betirako kentzea eta AEB-k berriz bermatzeko aukerarik ez izatea.

*Arau-haustek dagozkien administrazioei jakinaraziko zaizkie, jakitun izan daitezen eta hartu beharreko neurriak har ditzaten.

*Jardunbide desegoki bati egotzitako zigorrak eraztunleari berari jarriko zaizkio eta, arau-haustearen jakitun izan eta AEBko idazkaritzari jakitera eman ezean, era berean, talde-arduradunari ere luzatu ahal izango zaizkio.

ARAU HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

Falta arina

- Aurretik inongo justifikaziorik eman gabe, urteroko dokumentazioaren bidalketan bi hilabete baino gutxiagoko atzerapena izatea.
- AEBko idazkaritzak egindako eskabideei bi hilabete epean ez erantzutea.
- Erantzutzeko baimena AEBtik at bideratzea.
- Aranzadi Zientzia Elkarteko urteko kuota ez berritzea.
- Eratzunle espezifikoki bati bermea eman ostean, erantzuten ari dela, honen jokabidea eta eratzunketa balantzeak ez ikuskatzea.

Falta larria

- Bi urteren buruan lau falta arin pilatzea.
- Urteroko dokumentazioaren bidalketan bi hilabete eta urtebete arteko atzerapena izatea.
- AEBko idazkaritzak eskatu ostean dokumentazioaren berrikuspen edota zuzenketa-eskaera bati erantzunik ez ematea.
- AEBko idazkaritzak egindako eskaerei bi hilabete eta urte batetako tartean erantzunik ez ematea (adib.: atxikitako eratzunak ez itzultzea).

Falta oso larria

- Lau urteren buruan bi falta larri pilatzea.
- Urteroko dokumentazioaren bidalketan urte bete baino gehiagoko atzerapena izatea.
- AEBko idazkaritzak egindako eskaerei urte beteko tartean ez erantzutea.
- Aurreko kanpainetan bidalitako dokumentazioan akats larriak edota nahita eginiko omisioak izatea.
- AEBaren bermerik izan gabe, Aranzadi Zientzia Elkartearen izenean erantzutzeko baimena eskatzea.

Kanporatzea

- Bi falta oso larri pilatzea.
- Eratzunketak asmatzea edota ezkutatzea.
- AEBko Idazkaritzak eskatuta, urte baten buruan eratzunak ez itzultzea.

ERAZTUNLEEN JARDUNBIDEEN ARAU HAUSTEAK

Falta arina

- Identifikazioan, adina ematean, sexua ematean, neurriak hartzean, etab. akatsak errepikatzea.
- 25 eraztun baino gehiago justifikatu barik galtzea.

Falta larria

- Hiru urteren buruan hiru falta arin pilatzea.
- Baimen bereziak behar dituzten harrapaketa metodoak baimenik gabe erabiltzea.
- Harrapatutako hegaztiari eraztunak justifikazio barik aldatzea edo bi eraztun jartzea.
- Nahiz eta justifikatuta egon, hiru urteren buruan materiala behin eta berriz galtzea.

Falta oso larria

- Bi urteren buruan lau falta arin pilatzea.
- Baimena administratiboa berri gabe eraztuntzea.
- Hegaztiak eraztuntzean, heriotza edo lesioak ondorio dituzten akatsak egitea.
- Ondorio larriak izanik habiak uztea, kumatze kolonietan eragitea, lesioak dituzten hegaztiak,...), eraztuntzeko baimena bereziak behar dituzten laginketa teknikak erabiltzea.
- Edozein egoeratan debekatuta dauden harrapaketa metodoak erabiltzea.
- Hegaztientzako arriskutsuak izanik, debekatuta dauden eraztun, marka edo metodoak erabiltzea.

Kanporatzea

- Sei urteren buruan bi falta oso larri pilatzea.
- AEBaren ohartarazpena jaso arren, baimen bereziak behar dituzten baldintzetan edo espezieak eraztuntzea.
- Ezegokiak edo debekatuta dauden harrapaketa metodoak erabiltzea, AEBko Idazkaritzaren ohartarazpena jaso arren.
- Debekatuta dauden metodoak edo beste markatze metodoak baimenik gabe erabiltzea, AEBko Idazkaritzaren ohartarazpena jaso arren.
- Orokorrean falta larria edo larriago bat egitea, AEBko Idazkaritzaren ohartarazpena jaso arren.